

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatu Nagusiaren 478/2020 Foru Dekretua, abenduaren 30ekoa. Elkarteei eta irabazteko xedetik gabeko erakundeei zuzendutako deialdi publikoa onartzea, sentsibilizazioa eta kultura arteko bizikidetza sustatzera bideratutako programak edo jarduerak gara ditzaten. 2021eko ekitaldia

Deialdi hau Arabako Lurralde Historikoan kulturen arteko sentsibilizazioa eta bizikidetza sustatzeko premiaren barruan kokatzen da, bizikidetzaren kultura bultzatu eta sustatzen duten ekimenak sustatuz, topaketarako eta harremanetarako naturaguneak sortuz edo indartuz, eta gaitzespen, arrazismo eta xenofobia jarrerak prebenitzera eta horiei aurre egitera bideratuz.

Gaur egun, Araban 333.852 pertsona bizi gara; horietatik 42.617 atzerritarrak dira, eta biztanleria hori guztizkoaren ehuneko 12,8 da lurraldean. Gurea, beraz, askotariko gizartea da, plurala eta jatorri, kultura, tradizio, ohitura, hizkuntza eta erlijio anitzekoa. Gizarte modernoa da, eta immigrazioaren presentziak gain, aniztasuna identitate ezaugarri bat da. Eta aniztasun horren kudeaketan garrantzi handia du lurraldeko elkarleen sareak, bere proiektu eta jardueren bidez bizikidetza hobetzeko eta kulturartekotasunaren esparruan sentsibilizatzeko lan egiten baitu.

Testuinguru horretan, beharrezkoa da espazioa eta baliabide komunak interpretatzeko eta partekatze modu desberdinak harmonizatzea, eta funtsezkoa da bi norabideko harreman eredu bat lortzea, gizarte multikultural batetik gizarte interkultural batera eboluzionatuz.

Ezinbestekoa da aniztasuneko ingurune horretan bizitzen eta harremanak izaten ikastea, beste pertsona aitortuz, jarrera xenofoboak eta arbuiozkoak sortzea edo gurutzatzea saihestuz, prebentzioaren eta ekintzaren bidez. Helburu hori lortzeko, garrantzitsua da aurreiritzietan eta hurkoaren berri ez izatean oinarri duten uste ustelen eta estereotipoen hedapena saihesteko edo moteltzeko ekimenak bultzatzea, horrek guztiak etorkinekiko mesfidantza sortzen du eta.

Kultura arteko sentsibilizazioa lan ildoan izan behar da, elkarren artean trukeak egoteko eta elkar ezagutzeko espazio errealak bultzatuko dituen, errespetu eta elkarbizitza onaren gisako balioak zabaltzeko asmoz Arabako biztanle guztien artean. Horretarako, normalizazioaren alde egin behar da, batzen gaituzten eta komunean ditugun guneak sendotzeko eta bereizten gaituztenak errespetatzeko.

Horrek guztiak helburu hauek izango ditu: elkar ulertzea eta konplizitatea erraztuko duten guneak sortzea, etorkinei buruzko uste egokia jorratuko duten guneak bultzatzea, nork bere inguruan bizikidetza orekatua lortzen duen ardura ideia sustatzea eta erkidegoaren zati diren pertsona guztien parte hartze aktiboa eragitea.

Arlo honetan, ekintzarako erreferentzia berri bat sustatzen da Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Plana (2018-2020) 2018ko uztailan onestearen bidez, zeinaren "Bizikidetza eremua" izeneko 4.3.3. programazio neurrian xede hau jasotzen baita: "EAEko gizarte osoa sentiberatzea kulturarteko konpetentziak eskuratzearekin zerikusia duen orotan, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokan, diskriminazioaren eta atzerritar jatorriko pertsonenganako aurreiritzi eta estereotipoen aurkakoan eta hizkuntza dibertsitatean".

Era berean, Arabako Foru Aldundia Migrazioarako Itun Sozialari atxiki zaio, Eusko Jaurlaritzak bultzatua eta 2019ko azaroaren 30ean jendaurrean aurkeztua, hiru helburu argirekin: migratzaileen premien aurrean erantzun solidarioa eta arduratsua indartzen laguntzea; aitzakia xenofoboko populismoen nahiak antzu egingo dituen zeharkako batasun sozial eta politikoa eratzea; eta gure gizarteak migrazio erronkari hazkunde eta aurrerabide prozesu baten zati gisa aurre egitea.

Gainera, COVID-19ak sortutako pandemiak markatutako testuinguru batean gaude. Pandemi hori osasun larrialdi batetik harago doa. Krisi ekonomikoa, humanitarioa, segurtasunekoa eta giza eskubideena ere bada. Munduak dimentsio handiko krisi globalari egin behar dio aurre. Krisi horrek mundu osoan ondorio sozial, ekonomiko eta politiko larriak izango ditu, eta gogorrago kolpatuko ditu zaurgarritasun, pobrezia edo gizarte bazterkeria egoeran dauden pertsonak. Egoera horrek, zalantzarik gabe, 2021eko proiektuak eta jarduerak markatuko ditu, deialdi honen xedeari, lurraldeko bizikidetzari eta administrazio publikoen nahiz hirugarren sektorearen zereginari eta lanari eragin dielako.

Deialdi honetan jasotzen diren proiektuak oinarritu behar diren baldintzak, besteak beste, hauek dira: berdintasuna eta bereizkeriarik eza, eta zeharkako moduan, emakumeen eta gizonen aukera eta tratu berdintasunaren printzipioa eranstea, nazioz gaindiko erakundeek emandako zuzentzaruei jarraituz, baita ere estatuaren araudiari (martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerakoa) eta autonomia erkidegoko araudiari (otsailaren 18ko 4/2005 Legea, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa; Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI. Plana, eta Arabako emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Foru Plana).

Berdintasunerako eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak 2020ko abenduaren 21ean egindako proposamena ikusi da.

Horiengatik, diputatu nagusi bezala dagozkidan ahalmenez baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehena. Elkarteei eta irabazteko xederik gabeko erakundeei zuzendutako deialdi publikoa onartzea, sentsibilizazioa eta kultura arteko bizikidetzaz sustatzera bideratutako programak edo jarduerak gara ditzaten. 2021eko ekitaldia.

Bigarrena. Deialdi hori arautzeko, kontuan hartzen dira Diputatu Nagusiaren Sailaren lehia araubideko dirulaguntzak emateko oinarri orokorrak (23/2020 Foru Dekretua, uztailaren 21ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena, ALHAOn argitaratua, 84. zk., 2020ko uztailaren 27koa), bai eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 9ko 11/2016 Foru Arauaren eranskinak eta dekretu honen eranskinak xedatutakoa ere.

Hirugarrena. Gastua Arabako Foru Aldundiaren 2020rako aurrekontu proiektuaren 02.5.01.94.00 4.8.1.00.01. "kulturartekotasunaren ekintza pribatuak sustatzea" aurrekontu partidak (140.000,00 euroko kreditua izatea kalkulatzeko) babesten du. Beraz, dirulaguntzak emateko, ezinbestekoa izango da kreditu egokia eta nahikoa egotea dirulaguntza ebatzen den unean.

Zenbateko hori ehuneko 10ean handitu ahal izango da gehienez ere, kultura arteko sentsibilizazio eta bizikidetzaz programak eta/edo jarduerak garatzeko irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeentzako diren dirulaguntzen deialdi honi esleitutako urteko zenbateko osoarena.

Laugarrena. Organo eskumendunak eman beharreko ebazpena emango du, organo instruktoarek proposatuta, sei hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik hartzen ez bada, interesa duten erakundeek ezetsizat jo ahal izango dute eskaera.

Bosgarrena. Berdintasun eta Giza Eskubideen zuzendariari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu, interpretatu eta betearazteko behar diren egintza eta xedapen guztiak eman ditzan.

Seigarrena. Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 43. artikuluan xedatzen duen moduan.

Zazpigarrena. Foru Dekretu hau ALHAOn argitaratzea. Argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Zortzigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioket diputatu nagusiari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioket bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 30a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Berdintasunaren eta Giza Eskubideen zuzendaria

AINHOA CAMPO ARENAZA

ERANSKINA

IRABAZTEKO XEDERIK GABEKO ELKARTE ETA ERAKUNDEENTZAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDI PUBLIKOA, KULTURA ARTEKO SENTSIBILIZAZIOA ETA BIZIKIDETZA HELBURU DITUZTEN PROGRAMAK EDO JARDUERAK GARATZEKO – 2021EKO EKITALDIA

1. artikulua. Xedea eta helburua

Deialdiaren xedea da dirulaguntzak ematea, norgehiagoka araubidean. Dirulaguntza horien helburua da Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 1era bitartean irabazi asmorik gabeko elkarte edo erakundeek sustatutako proiektuak, genero ikuspegia dutenak, garatzeko laguntza ematea, Vitoria-Gasteizko udalerrian garatutakoak izan ezik.

2. artikulua. Dirulaguntzen aurrekontua, zenbatekoa eta muga

Gastua Arabako Foru Aldundiaren 2020rako aurrekontu proiektuaren 02.5.01 94.00 4.8.1.00.01. "Kulturartekotasunaren ekintza pribatuak sustatzea" aurrekontu partidak, 140.000,00 euroko kreditua izatea kalkulatzen da, babesten du. Beraz, dirulaguntzak emateko, ezinbestekoa izango da kreditu egokia eta nahikoa egotea dirulaguntza ebazten den unean.

Deialdi honen esparruan, diruz lagun daitekeen aurrekontu osotzat jotzen da deialdi honen arabera diruz lagun ezin daitezkeen gastuak proiektuaren aurrekontu osotik kenduta ateratzen den zenbatekoa.

Arabako Foru Aldundiko Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak diruz lagundu daitekeen aurrekontu osoaren ehuneko 80 finantzatu du gehienez, eta erakunde eskatzaileari dagokio gainerako ehuneko 20a erabilgarri dagoela ziurtatzea.

Erakunde eskatzaileak ekarpena egin ahal izango du, bai boluntarioen balorizazioen bidez, bai funts propioen, beste erakunde pribatu edo publiko batzuetatik datozen funtsen eta/edo jarduerak sortutako diru sarreraren bidez, betiere 4.3 artikuluan diruz laguntzeko moduko gastu gisa adierazitako partidetak ekarpen ekonomikoak baliatuz eta artikuluko horretan ezarritako mugak kontuan hartuz.

Borondatezko langileen balorizazioak ekarpen propioa justifikatzeko bakarrik hartuko dira kontuan, eta inola ere ezingo zaizkie egotzi ez Arabako Foru Aldundiari, ez beste erakunde publiko edo pribatu kofinantzaile batzuei.

Emandako dirulaguntzak ezin izango du inola ere gainditu eskatutako zenbatekoa, ez eta proiekturako diruz lagun daitekeen aurrekontu osoaren ehuneko 80 ere; erakunde bakoitzeko dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 8.000 eurokoa izango da, eta erakunde eskatzaile bakoitzeko proiektu bakarra aurkeztu ahal izango da.

Ez dute dirulaguntzarik jasoko, deialdi honetan ezarritakoaren arabera berraztertuta, entitateko 800 euroko dirulaguntzara heltzen ez diren eskaerek.

Diruz lagun daitekeen aurrekontua doitzeko, hala badagokio, proiektuaren kostua beste dirulaguntza eta/edo baliabide publiko edo pribatu batzuetako funtsekin batera finantzatzeko eskatu duen erakundeak ebazpen horren berri eman beharko dio Berdintasunerako eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari, eta jakinarazpen horrekin batera, dirulaguntza eman edo ukatu izanaren egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu.

Dirulaguntza horiek bateragarriak izango dira Arabako Foru Aldundiak berak edo estatuko zein nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuek emandako beste dirulaguntza edo diru sarrera batzuk jasotzearekin, baldin eta dirulaguntza horien zenbatekoak, bakarka hartuta edo beste dirulaguntza batzuekin batera, ez badu gainditzen diruz lagun daitekeen guztizko aurrekontua.

3. artikulua. Zein elkartek edota entitatek eskura ditzakeen dirulaguntza hauek eta zeinek ez

1. Dirulaguntza hauen onuradun izan ahalko dira egoitza Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko enklabean duten irabazi asmorik gabeko fundazio eta elkarteak, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean Eusko Jaurlaritzaren Elkarteen Erregistro Orokorrean edo, hala badagokio, dagokion erregistro publikoan legez eratuta eta erregistratuta daudenak.

2. Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsitako diputatu nagusiaren lehia araubideko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorren 3. artikuluan aipaturikoak baztertuta geratzen dira.

4. artikulua. Diruz lagun daitezkeen proiektuak eta gastuak

Berdintasunerako eta Giza Eskubideetarako Zuzendaritzak interesgarritzat jotzen dituen eta publiko orokorrari irekita dauden proiektu diruz lagunduak programazio honen parte izango dira: LAIA Eskola – Arabako Emakumeen Berdintasunerako eta Jabekuntzarako Eskolaren eta/edo Arabako Foru Aldundiaren beste partaidetza plataforma batzuen (Garapen Iraunkorren aldeko Arabako Aliantza, etab.) urteko programazioaren parte.

Ikastetxeek, elkarteek, udalek eta abarrek elkarrekin planifikatu eta/edo lagundu ditzaketen proiektuetarako, konpromiso idazki bat aurkeztu beharko da proiektua gauzatzen parte hartzeko (eredua eranskinean dago).

1. Diruz lagun daitezkeen proiektuak:

Honako proiektu hauek jaso ahal izango dute dirulaguntza:

– Kulturartekotasunaren eta aniztasunaren esparruan ikusarazteko eta sentsibilizatzeko proiektuak.

– Immigrazioari lotutako aurreiritzi, zurrumuru eta estereotipoei aurre egiteko proiektuak, gatazkei eta ahultasun egoerei aurre hartzeko eta aurre egiteko, eta jarrera eta jokabide arrazista eta xenofoboiei aurre egiteko.

– Bizikidetzak hobetzeko eta elkarrizketa, topaketa eta harremanetarako espazioak sustatzeko proiektuak.

2. Diruz lagundu ezin diren proiektuak:

Ez dira diruz lagunduko:

1. Vitoria-Gasteizko udalerrian garatutako proiektuak edo jarduerak.

2. Soilik atzerritarrei zuzendutako proiektuak; argi eta garbi jaso beharko dira proposatutako esku hartzeen noranzko bikoiztasuna eta benetako kulturartekotasuna, azken helburu gisa.

3. Banakako pertsonen eta/edo gizarte erakundeen egoerak, baldintzak edo inguruabarrak hobetzeko ekintzak planteatzen dituzten proiektuak; proiektu horiek komunitatearen, herritarren, auzotarren eta abarren mailan kokatu beharko dira.

4. Honako jarduera hauek barne hartzen dituzten proiektuak: hizkuntzak ikastea edo praktikatzea, haurren eta/edo gazteen eskola indartzea eta kultura eta aisialdi ekimenak, kulturaren arteko sentsibilizazio eta/edo bizikidetzaren eraginkorra lortzera bideratutako estrategiarik edo metodologiarik jasotzen ez dutenak.

5. Zuzenean edo zeharka arlo soziosanitarioari eta prestakuntza eta/edo lan eremuei lotutako jarduerak barne hartzen dituzten proiektuak (besteak beste, trebakuntza eta/edo gizarteratze soziolaboralera bideratutako ikastaroak, tailerrak, etab., pertsonen edo erakundeen informazioa, laguntza eta/edo prestakuntza eta/edo aholkularitza soziolaborala emateko baliabideak/zerbitzuak, laneko diskriminazio kasuetan planteatutako esku hartzeak, etab.).

6. Diputatu Nagusiaren Sailaren lehia araubideko dirulaguntzak emateko oinarri orokorren arabera, genero ikuspegia justifikazioaren atalean sartzen ez duten proiektuak (II. eranskineko 1. puntua). Izan ere, bertan, gutxienez, emakumeen eta gizonen beharrez eta egoera espezifikoen azterketa bereizia jasotzen da, bai eta proiektu horrek berdintasunaren aurrerabideari egiten dion ekarpena ere.

7. Aurrekontuan inprimakiko (II. eranskina) 3. atala ondo xehatuta aurkeztu ez edota irizpide honetan punturik lortu ez duten proiektuak.

3. Diruz lagun daitezkeen gastuak:

1. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak, merkatuko balioa gainditzen ez dutenak eta 2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 1era bitartean egiten direnak.

2. Dirulaguntza lortzeko eta justifikatzeko, honako hauek lagunduko dira diruz:

a) Material suntsikorren gastuak.

b) Bidaia gastuak:

Joan-etorrietako gastuen kasuan, ahal den neurrian garraio publikoa erabiliko da. Garraio pribatua erabili behar izanez gero, gehieneko muga 0,29 eurokoa izango da kilometro bakoitzeko.

c) Kontratazio gastuak (profesionalak, soldatapeko langileak eta beste batzuk –enpresak, elkarteak–, proiektua zuzenean gauzatzeko):

Kontratazio baten gastuak dirulaguntzarako onartzeko ezinbestekoa da kontratatzen den pertsona edo entitatea proiektuan aritzea. Erakundearen koordinazio eta/edo administrazio gastuak ez dira sartuko kontratazio gastuetan.

Lantegiak eta ikastaroak egiteko kontratazioen gastuetan, bai eta bakarriketa, mintegi, hitzaldi edota antzeko beste ekimen batzuk egiteko kontratazioen gastuetan ere, dirulaguntzarako gehienez 120,00 euro onartuko dira orduko (zergak eta gizarte segurantzaren barne). Gehieneko zenbateko horretan sartuko da jardueren kudeaketa, koordinazioa, prestailanak, gauzatzea, joan-etorriak eta ebaluazioa egiteko behar den denbora. Jarduera hori ezingo da 16 ordutik gorakoa izan.

Tailer, ikastaro eta abarren bat behin baino gehiagotan errepikatzen bada proiektua gauzatzeko aldiaren ordu bakoitzeko diruz lagun daitezkeen gehieneko muga ehuneko 25 murriztuko da, lehenengoan jada aplikatu denarekin alderatuta.

Organo kudeatzaileak aurreko kasuan deskribatutako diruz laguntzeko moduko mugak betetzen direla egiaztatu ahal izateko, erakunde eskatzaileak aurkeztutako proiektuaren aurrekontuan banakatu eta zehaztu beharko du jardueraren iraupen ordu kopurua, bai eta dagokion orduko zenbatekoa ere (zergak barne).

Era berean, antzerki eta musika emanaldiei eta antzeko beste ekintza batzuei dagokienez, kontratazioak gehienez 900,00 euroko dirulaguntza jaso ahal izango du (zergak barne).

d) Publizitate gastuak.

e) Boluntarioen balorizazioa:

Ekarpen propioa justifikatzeko bakarrik hartuko da kontuan, eta diruz lagundu daitekeen gehieneko muga orduko 20,00 eurokoa izango da.

f) Gastu orokorrak edo zeharkakoak:

Proiektuaren zuzeneko kostuen gehienez ehuneko 10 lagundu ahal izango da diruz, justifikatu beharrik gabe. Hortik kanpo geratzen da langile boluntarioen balorizazioa.

Gastu orokorren barruan sartuko dira diruz lagundutako jarduerarekin lotura zuzena ez duten elektrizitate, berogailu, ur, telefono, alokairu eta zerbitzu orokorren gastuak, egitura kostuei dagozkienak, eta abar. Kontzeptu horretan sartuko dira, halaber, entitatearen koordinazioaz edota administrazioaz arduratu diren langileen gastuak.

g) Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilerari buruz ezarritakoa betetzeak entitate onuradunei eragiten dizkien gastuak.

h) Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ), baldin eta erakundeak ezin badu berreskuratu.

4. Diruz lagundu ezin diren gastuak:

Honako hauek ez dira diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko:

– Material ez-suntsikorra eta material informatikoa edo ekipa teknikoak erostearen ondoriozkoak.

– Otorduak, egonaldiak, opariak edo antzeko beste zeregin batzuk.

– Argitalpenak editatzeko gastuak (paperean, CDan, webgunean, etab.).

Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren ustez deialdi honen xederako behar beste laguntzen ez duten jarduerak badaude, baztertu egin ahal izango dira esleitu beharreko dirulaguntza kalkulatzeko.

Diruz lagun daitekeen aurrekontuaren ehuneko 100era arte azpikontratatzeko baimena eman ahal izango da, betiere Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak bere 27. artikuluan ezarritako baldintzak betez.

Erakunde onuradunak lotutako pertsonekin edo erakundeekin hitzartu ahal izango du be-tearazpena, betiere honako baldintza hauek betetzen badira:

1. Kontratazioa merkatuko baldintza normalen arabera egitea.

2. Dirulaguntza ematen duen organoaren alde aurreko baimena lortzea (II. eranskinean jasotako eskabide ereduaren arabera).

Azpikontratazioari dagokionez, onuradun batek azpikontratatu egiten duela ulertuko da dirulaguntzaren xede den jarduera osorik edo zati batean hirugarrenekin hitzartzen duenean. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen da erakunde onuradunak dirulaguntza jaso duen jarduera bere kabuz gauzatzeko egin behar dituen gastuen kontratazioa.

5. artikulua. Eskabideak aurkeztea

Eskabideak aurkezteko epea, deialdi honen seigarren artikuluan aipatzen diren agiriekin batera, hogeit hamar egun baliodunekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Agiriak bide telematikoz aurkeztu beharko dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa, hartarako egokitutako prozedura elektronikoa jarraituz, eta haren barruan dauden eskabide ereduak betetz. Horien edukia deialdi honi erantsita doa, onesteko.

Izapideak nahitaez online egin behar dituzten pertsonak bertaratuz egiten badute, online egitea eskatuko zaie. Ondorio horietarako, zuzenketa hori egin den eguna joko da eskaeraren aurkezpen datatzat.

Eskabide horietan, zehazki I. eranskinean, bertan jasotako informazioaren eta dokumentazioaren benetakotasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpen bat erantsiko da.

6. artikulua. Agiriak

1. Eskabideekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Entitateak egoitza Araban edo Trebiñuko enklabean duela egiaztatzen duen agiria.

b) Erakundearen indarreko estatutuak eta legez erata eta dagokion Elkarte eta Erakundearen Erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duten agiriak.

c) BEZetik salbuetsita dagoela adierazten duen ziurtagiria, zerga administrazio eskudunak emana; eta balio erantsiaren gaineko zergaren (BEZ) hainbanaketa erregelari dagoenak, portzentajearen justifikazioa.

d) Eskaera orria, I. eranskinaren arabera.

e) Proiektuaren inprimakia, II. eranskinaren arabera.

f) Baldin eta beste dirulaguntza publiko eta/edo pribaturen bat eskatu bada, haien egiaztari agiriak aurkeztu behar dira, eta zenbat diru eskatu den adierazi.

g) Egoki bada, lankidetzaren konpromisoaren idazkia (II. eranskinean dagoen ereduaren arabera).

h) Egoki bada, kontratazio gastuen aurreikuspenaren azalpen idazkia (II. eranskinean dagoen ereduaren arabera).

i) Hala badagokio, azpikontrataziorako baimen eskaera (II. eranskinean jasotako ereduaren arabera).

2. Erakunde onuradunek zerga betebeharrak egunean dituztela egiaztatu beharko dute, eta soldatapeko langileak badituzte, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituztela.

Zerga betebeharrei eta Gizarte Segurantzarekiko dagokienez, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen Foru Arauak 21.3 artikuluan xedatzen duenaren arabera, erakunde onuradunak eskaera aurkeztuz gero, organo kudeatzaileak haren baimena edukiko du zerga administrazioek eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eman beharreko ziurtagiriak eskatzeko.

3. Administrazio publikoaren administrazio prozedura erkideari buruzko Legearen 28.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, erakunde interesdunek Arabako Foru Aldundiak jadanik dituen edo beste edozein administrazio egin dituen agiriak ez aurkezteko eskubidea dute. Horrenbestez, administrazioak agiri horiek kontsultatu edo bil ditzake, eskatzaileek egiaztatze hori egitea uzten ez badute izan ezik. Kasu horretan, eskatzaileak berak aurkeztu beharko dituzte agiriak.

Halaber, aurretik edozein administrazioari aurkeztutako agiririk ez zaie eskatuko erakunde interesdunei. Ondorio horietarako, entitateak adierazi beharko du noiz eta zein administrazio organoren aurrean aurkeztu zituen dokumentu horiek, eta organo instruktoreari eskatu beharko dizkio, salbu eta prozeduran jasota badago entitatearen berariazko aurkakotasuna edo aplikatzeko den lege bereziak haren berariazko baimena eskatzen duela.

Salbuespenez, baldin organo izapidegileak ezin baditu lortu aurreko apartatueta adierazitako agiriak, erakunde interesdunari berriz ere aurkezteko eskatu ahalko dio.

4. Eskabidearekin batera nahiz frogagiritan bide elektronikoz ematen diren kopiek balioa izango dute dirulaguntzak emateko administrazio prozedura izapidetzeko bakarrik. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 28.7. artikuluan ezarritakoaren arabera, onuraduna da aurkeztutako agirien egiazkotasunaren erantzulea. Hala ere, Administrazioak beharrezkoak diren jarduketa guztiak egin ahal izango ditu egiaztatutako egitateak eta aurkeztutako agiriak benetakoak direla egiaztatzeko, eta erakunde interesdunek Arabako Foru Aldundiaren esku jarriko dituzte horretarako eskatzen zaizkien agiri guztiak.

5. Eskabidean edo horrekin batera aurkezten diren agirietan akatsik izanez gero edo osorik bete gabe egonez gero, hamar egun balioduneko epea emango zaie interesdunei antzemandako akatsak konpontzeko. Epe hori igaro eta akatsak konpondu ezik, eskatzaileak eskaera bertan behera utzi duela ulertuko da; horretarako, ebazpena emango da urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua ezarritakoarekin bat etorriz.

7. artikulua. Izapidetzea eta balorazio batzordea

Arabako Foru Aldundiko Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzako Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzuak izango du prozedura bideratzeko eskumena.

Eskabideak Balorazio Batzorde batek aztertuko ditu. Batzordeburua Berdintasunerako eta Giza Eskubideetarako zuzendaria izango da, edo hark eskuordetutako pertsona. Batzorde horretako kide izango dira Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzuko burua, kulturartekotasun teknikari bat eta Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari atxikitako teknikari bat. Idazkari lanak Idazkaritza Teknikoaren eta Herritarren Arretaren buruak egingo ditu, edo azken horrek eskuordetutako pertsona batek. Azken horrek hitza izango du, baina botorik ez. Batzorde horretako kideetako batek, gutxienez, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko ezagutzak eta/edo hura aplikatzen esperientzia izan beharko du.

8. artikulua. Deialdia ebaztea

1. Organo eskumendunak eman beharreko ebazpena emango du, organo instruktoreak proposatuta, sei hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehieneko epea igaro eta ebazpen espresurik eman ez bada, erakunde interesdunak ulertu ahal izango du eskaera ezetsi egin dela.

2. Dirulaguntza emateko ebazpenak, oinarri arautzaileak eta deialdiaren baldintzak betetzen direla arrazoitzeko, honako hauek adierazi beharko ditu:

a) Dirulaguntza jasotzen duen erakundea edo erakunde onuradunen zerrenda, banakako zenbatekoekin, bai eta ezestea eta ez ematea ere, kontuan hartu gabeko eskabideetan atzera egiteagatik, eskubideari uko egiteagatik edo gerora gertatutako ezintasun materialagatik.

b) Lagundutako proiektuaren izena eta diruz lagun daitekeen aurrekontua.

3. Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 43. artikuluan xedatzen duen moduan.

Denek jakin dezaten, emandako dirulaguntzak ALHAOn, Arabako Foru Aldundiaren garden-tasun atarian eta Arabako Foru Aldundiaren webgunean argitaratuko dira (<https://web.araba.eus/eu/berdintasun-lankidetzeta-eta-kulturartekotasuna>).

4. Deialdia ebazten duen ebazpenaren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez da-kioke ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, hura jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera. Edo, bestela, bi hilabeteko epean, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

9. artikulua. Balorazio irizpideak eta haien haztapena

Irizpide hauek aplikatuko dira:

1. Aurkeztutako proiektuaren justifikazioa (gehienez 5 puntu):

Proiektuak aipatzen duen lurraldeko udalerrian edo udalerrietan dagoen testuinguruaren eta errealitatearen azalpen argia eta laburra, eta planteatutako beharra konpontzen edo hobetzen laguntzea. Genero ikuspegia kontuan hartu beharko da, gutxienez puntu honetan, 4. artikuluan adierazi bezala.

2. Proiektuaren kalitate teknikoa (gehienez 15 puntu):

Proiektuaren justifikazioaren, duen helburuaren, metodologiaren, planifikatutako jardueren eta aurreikusitako jarraipenaren eta ebaluazioaren arteko lotura. Proiektuaren koherentzia orokorra (gehienez 5 puntu):

Jardueren konkretutasuna, argitasuna, zehaztasuna eta plangintza. Gainera, berdintasuneko jarrerak garatzeari dagokionez edukiak edo metodologiak sartzea baloratuko da (5 puntu, gehienez).

Proiektuaren berrikuntza maila. Proiektuaren izaera berritzailea edota proiektuaren faseetan sartutako elementu berritzaileak, metodologiarekin, baliabideekin, materialekin, ekintzekin, zabalkundearekin edo berritzailetzat har daitezkeen bestelakoekin erlazionatutakoak (3 puntu).

Epe ertain eta luzera jarduera prozesu estrategikoak sortzea helburu duten proiektuak (2 puntu).

3. Proiektuaren aurrekontua (gehienez 5 puntu):

Aurrekontua zehaztea eta proiektuari egokitzea, oinarri orokorretan Berdintasunerako eta Giza Eskubideetarako Zuzendaritzaren baliabideak esleitzeko eta erabiltzeko eraginkortasunari buruz jasotako printzipioari jarraituz.

4. Proiektuaren eragina (10 puntu):

Hartzaileen profila eta gutxi gorabeherako parte hartzaile kopurua; hurbiltzeko eta zabaltzeko prozedura; berdintasunaren arloan espero diren aurrerapenak; sareko lana (5 puntu, gehienez).

Herritarrek eta, bereziki, immigratzaileek proiektuaren faseetan duten inplikazioa (5 puntu).

5. Proiektuan genero berdintasunaren ikuspegia jasotzea (gehienez 5 puntu):

Proiektuaren atal bakoitzean, genero berdintasunaren ikuspegia nola aintzat hartu den baloratuko da (datuak sexuaren arabera bereizita, hizkuntza inklusiboa, inplikaturako pertsonen genero prestakuntza, etab.), sexuaren arabera esleitutako rolei eta estereotipoei arreta berezia jarrita.

6. Euskararen erabilera proiektuaren garapenean (3 puntu).

7. Erakundeak Arabako Lurralde Historikoan eta Vitoria-Gasteizko hiriburutik kanpo duen egoitza nagusia (7 puntu).

Proiektu bat diruz lagundua izan dadin, orotara eman daitekeen puntuazio osoaren ehuneko 50eko puntuazioa lortu beharko du gutxienez.

Irizpide bakoitzean gehienez lor daitekeen puntuaziotik lortutako puntuak batu egingo dira eta dirulaguntza eman aurretik, aurkeztutako eta onartutako eskaerak alderatuko dira, horien arteko hurrenkera bat ezartze aldera. Hurrenkera hori puntuen arabera izango da eta dirulaguntzak hurrenkera horren arabera esleituiko dira, puntu gehien dituen eskaeratik hasi eta gutxien dituen eskaerara, aurrekontua bukatu arte.

Puntuazio portzentajearen azken tartean sartzen diren eta aurrekontu erabilgarria agortzen duten eskabideei dagozkien dirulaguntzen zenbatekoak kalkulatzeko, gerakina hainbanatuko da, diruz lagun daitekeen proiektu edo jarduera bakoitzean diruz lagun daitekeen aurrekontuaren arabera.

Dirulaguntzaren xedea erakunde eskatzaileak egin beharreko jarduerak finantzatzea deanean, ebazpen proposameneko dirulaguntzaren zenbatekoa aurkeztutako eskabidean ageri den zenbatekoa baino txikiagoa bada, Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzuak erakunde onuradunari bere eskabidea birformulatzeko eskatu ahal izango dio, konpromisoak eta baldintzak eman daitekeen dirulaguntzari egokitzeko.

10. artikulua. Gastuak justifikatzea. Epea eta erakunde onuradunek aurkeztu beharreko agiriak

1. Deialdi honetan aplikatuko den justifikazioa, justifikazio kontu sinplifikatua izango da.

Dirulaguntza jasotzen duten erakundeek diruz lagun daitekeen aurrekontu osoa justifikatu beharko dute, eta, horretarako, memoria deskribatzaileak eta ekonomikoak aurkeztu beharko dituzte (memoria horietan, diruz lagun daitekeen aurrekontu osoari dagozkion gastuak adieraziko dira), bai eta justifikazio agiri ekonomikoak ere (nominak, fakturak edo agiri baliokideak eta ordainagiriak).

Dokumentazio hori aurkezteko epea 2021eko abenduaren 15era artekoa izango da.

2. Dirulaguntzen erakunde onuradunek aurkeztu beharreko dokumentazioa Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretuaren bidez onartutako diputatu nagusiaren lehia araubideko dirulaguntzak emateko oinarri orokorren 14. artikuluan adierazitakoa izango da.

Aurrekoaz gain, honako hauek ere aurkeztu beharko dira:

– Borondatezko langileak balorizatzeko moduan erakunde onuradunak berak egindako ekarpena justifikatuz gero, borondatezko lan balorizatua azaltzen duen ziurtagiria, erakundearen legezko ordezkariak sinatua (III. eranskineko ereduaren arabera).

– Proiektuak beste finantza iturriren bat badauka (funts publikoak zein pribatuak), funts horiek (laguntzak, dirulaguntzak...) eman edo ukatu izana frogatzen duten agiriak.

Halaber, diruz lagundutako jarduera justifikatzeko beste agiri erantsi batzuk aurkeztu ahal izango dira (txosten eta memoria zabalduak, argitalpenak, publizitatea, argazkiak eta abar).

III. eranskinean, proiektua justifikatzeari buruzkoan, erantzukizunpeko adierazpen bat jasoko da, bertan jasotako informazioaren eta dokumentazioaren egiazkotasunari buruzkoa.

2.1. Langile eta/edo profesionalen gastuen justifikazioa:

Diruz lagun daitekeen aurrekontuari egotzitako soldatapeko langileak eta/edo profesionalak kontratatzekeo gastuen justifikazioa eta ordainketa aurkeztea nahitaezkoa izango da beti.

Soldatapeko langileen gastuei dagokienez, entitateak proiektuaren adskripzio aldian kontratatuta izan dituen pertsonen nominak aurkeztu beharko ditu, horiek ordaindu izanaren justifikaziotzat onartuz hauetakoren bat:

– Nominak.

– Dagokion zenbatekoa eta hilerokoa kobratu duela adierazten duen idazkia, langileak sinatuta.

– Nominen ordainketa multzokatuaren jatorrizko banku laburpena eta horrekin batera, enpresa/entitate onuradunaren ziurtagiria, langileen nominak transferentzia horren kontra ordaindu direla zehazten duena eta langile bakoitzari aurkeztutako hilabete bakoitzeko zein kopuru dagokion adierazten duena.

Horrez gain, nahitaez aurkeztu beharko dira Gizarte Segurantzaren TC1 eta TC2 ereduak, eta bidezko kotizazioen ordainketaren laburpena.

Soldatapeko langileen gastuen eta profesionalak jaulkitako fakturen kasuan, egindako pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren kontura atxikitako zenbatekoak sartu izana justifikatzeko bankuko ordainagiria duten 110 ereduak erantsi beharko dira, bai eta gastuen egiaztagiri gisa aurkeztutako nominen eta/edo fakturen 190 ereduak ere.

Erakundeak 2022ko otsailaren 15erako aurkeztu behar ditu TC1 eta TC2 ereduak eta ordainketa agiriak, 110 ereduak eta banku ordainagiriak eta 190 ereduak, baldin eta ezinezkoa izan bada, zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak betetzeko egutegiari jarraituz, azken justifikazioa aurkezteko datarako aurkeztea. Hala izanez gero, bigarren ordainaldia, dirulaguntzaren ehuneko 20koa, justifikatzeko aurrerakin gisa egingo da.

2.2. Beste gastu batzuen justifikazioa:

Soldatapekoak eta/edo profesionalak ez diren gastuen kasuan, fakturak edo agiri baliokideak baino ez dira aurkeztu beharko, baldin eta, banaka edo erakunde hornitzaile berean, 500 eurotik gorakoak badira (BEZ kanpo), bai eta diruz lagun daitekeen aurrekontu osoaren ordainagiriak ere.

Aurrekoa gorabehera, zuzendaritza honek eskatu eta egiaztatu ahal izango ditu, laginketa tekniken bidez, egoki jotzen dituen agiriak, nahitaez aurkeztu behar izan ez direnak; horretarako, entitate onuradunari eskatu ahal izango dio hautatutako gastu justifikazioak bidaltzeko.

Ez dira onartuko honako datuak argi eta garbi azaltzen ez dituzten fakturak, ez antzeko agiriak:

- Pertsona edo entitate jaulkitzailea, haien izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Pertsona edo entitate hartzailea, haien izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Faktura-zenbakia.

Era berean, PFEZen (pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga) konturako atxikipenei buruzko zerga araudia eta fakturazio betebeharrari buruzkoa araudia betetzen ez dituzten fakturak eta ordainagiriak ez dira onartuko gastuen frogagiri gisa.

Dirulaguntzak justifikatzeko, faktura elektronikoen erabilera onartuko da, betiere fakturazio betebeharren esparruan araudian ezarritako baldintzak betetzen badira (maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretua, fakturatzeko betebeharrak arautzen dituen arautegia edo aplikatzekoa den arautegia onartzen dituen).

Fakturak ordaindu direla egiaztatzeko agiriei dagokienez, ordainketaren frogagiri hauek onartuko dira:

- Bankuko ziurtagiria; bertan agertuko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren ente onuraduna.
- Fakturaren jaulkitzaileak izenpetutako edota zigilatutako ziurtagiria; bertan agertuko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.
- Posta arruntez jasotako banku laburpenak.
- Kontu korronteen libretak, dagozkien mugimenduekin, bankuaren zigilu estanpatuarekin.
- Bankuak posta elektronikoz bidalitako laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigiluarekin.

— Edo erosketatik, baldin eta horiek erabiltzean zenbatekoa ordaindu bada (merkataritzagunea, autobidea, bidaia txartelak, etab.), edo faktura jaulki duen enpresaren zigilua duten fakturak, faktura ordaindu dela zehazten dutenak.

Ez dira onartuko zenbateko bereko edo handiagoko eragiketen eskudirutan egindako ordainketak, edo atzerri monetan egindako kontrabaliok, 2021. ekitaldirako indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera. Ondorio horietarako, ondasunen entrega edo zerbitzuen prestazioa zatitu ahal izan den eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

11. artikulua. Dirulaguntza aldatzea

Diruz lagundu daitezkeen aurrekontuari eta emandako dirulaguntzari hasieran onartu zaien muga oinarri hartuta, aldaketak onartu ahal izango dira diruz lagundu daitezkeen kontzeptu eta zenbatekoetan, nahiz eta diruz lagundu daitezkeen kontzeptuetakoren bat gauzatu gabe gelditu.

Justifikazio dokumentazioan jasotako desbideratze ez nabarmen horiek Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzuaren oniritzia izan beharko dute.

12. artikulua. Dirulaguntzak ordaintzea

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da. Lehenengo zatia, dirulaguntzaren ehuneko 80, dirulaguntza emateko datatik aurrera ordainduko da aurrerakin gisa, eta bigarren zatia, gainerako ehuneko 20a, dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu ondoren.


Salbuespenez, bigarren ordainketari dagokionez, eta aurkezturiko amaierako justifikazioan ez bada egiaztatu egindako gastuen ordainketa dirulaguntzaren ehuneko 20koa edo gutxiagokoa izan dela, justifikatu beharreko aurrerakin gisa egingo da ordainketa, eta ordainketa haien egiaztatgiriak dirulaguntza jaso eta hilabeteko epean aurkeztu beharko dira.

13. artikulua. Itzulketa

Diruz lagundutako proiektua gauzatu ezin bada, inguruabar hori adierazi beharko da Arabako Foru Aldundiari emandako zenbatekoa itzultzeko, eta ezin izango da inolako kopururik erabili diruz lagundutako jardueraren edukiei zuzenean egotzi ezin zaien beste jarduera edo gastu baterako. Itzulketa hori dagokion zenbatekoa sartuta egingo da.

14. artikulua. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	I. ERANSKINA Eskaera orria. Elkarteei eta irabazteko xederik gabeko erakundeei zuzendutako dirulaguntzak, sentsibilizazioa eta kultura arteko bizikidetza sustatzera bideratutako proiektuak edota jarduerak garatzeko (2021) ANEXO I Formulario de solicitud de subvención dirigida a Asociaciones y Entidades sin ánimo de lucro para el desarrollo de proyectos y/o actividades destinadas a la sensibilización y a la convivencia intercultural 2021	9408
	Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzua	Servicio de Igualdad, Cooperación e Interculturalidad

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE ⁽¹⁾

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo <input type="checkbox"/> IKZ CIF <input type="checkbox"/> NAN DNI <input type="checkbox"/> AIZ NIE <input type="checkbox"/> Besteren bat Otro				Identifikazio zk. ■ Nº identificativo <input type="text"/>		Sexua ■ Sexo <input type="checkbox"/> Emakumea Mujer <input type="checkbox"/> Gizona Hombre		
Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre o razón social <input type="text"/>				Lehen abizena ■ Primer apellido <input type="text"/>		Bigarren abizena ■ Segundo apellido <input type="text"/>		
Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle) <input type="text"/>				Zk. ■ Núm. <input type="text"/>	Letra <input type="text"/>	Eskra. ■ Escal. <input type="text"/>	Solairua ■ Piso <input type="text"/>	Aldea ■ Mano <input type="text"/>
Herrialdea ■ País <input type="text"/>		Probintzia ■ Provincia <input type="text"/>		Udalerría ■ Municipio <input type="text"/>		Herria ■ Localidad <input type="text"/>		P. K. ■ C. P. <input type="text"/>
Telefonoa ■ Teléfono <input type="text"/>		Mugikorra ■ Móvil <input type="text"/>		Posta elektronikoa ■ Correo electrónico <input type="text"/>				

JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOARI LOTUTAKO HARREMANETARAKO DATUAK
DATOS DE CONTACTO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN ELECTRÓNICA

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 43.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, jakinarazpen elektronikoak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez egingo dira. Hartzailleek egoitza elektroniko horretako "nire jakinarazpenak" atalean eskuratu ahal izango dituzte.

Jakinarazpen elektronikoak eskuratu ahal izango dituzte hartzailleek eta/edo, hala badagokio, haiek gaitutako pertsonak.

Erakunde eskatzaileak gailu elektroniko bat eta/edo helbide elektroniko bat identifikatu ahal izango du, abisuak bidaltzeko balioko duena, egoitza elektronikoan jakinarazpen bat eskuragarri jarri dela jakinaraziz. Hala ere, ohar hori egiten ez bada ere, jakinarazpena guztiz baliozkoa izango da:

Conforme a lo previsto en el artículo 43.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las notificaciones electrónicas se practicarán por el sistema de comparecencia en sede electrónica de la Diputación Foral de Álava. Las personas destinatarias podrán acceder a ellas en el apartado "Mis notificaciones" de dicha sede electrónica.

Podrán acceder a las notificaciones electrónicas las personas destinatarias de las mismas y/o, en su caso, las personas habilitadas por ellas.

La entidad solicitante podrá identificar un dispositivo electrónico y/o una dirección de correo electrónico que servirán para el envío de los avisos informándole de la puesta a disposición de una notificación en la sede electrónica. No obstante, la falta de práctica de este aviso no impedirá que la notificación sea considerada plenamente válida:

Posta elektronikoa ■ Correo Electrónico <input type="text"/>	Telefono mugikor zenbakia ■ Número de teléfono móvil <input type="text"/>
--	---

LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL

(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da ■ Obligatorio para las personas jurídicas)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo			Identifikazio zk. ■ N° identificativo	Sexua ■ Sexo	
<input type="checkbox"/> NAN DNI	<input type="checkbox"/> AIZ NIE	<input type="checkbox"/> Besteren bat Otro		<input type="checkbox"/> Emakumea Mujer	<input type="checkbox"/> Gizona Hombre
Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre o razón social			Lehen abizena ■ Primer apellido	Bigarren abizena ■ Segundo apellido	
Protokolo zk. ■ N° protocolo			Data ■ Fecha	Notario ■ Notario	
Telefonoa ■ Teléfono	Mugikorra ■ Móvil	Posta elektronikoa ■ Correo electrónico			

ESKAERAREN DATUAK ■ DATOS DE LA SOLICITUD

<input type="checkbox"/>	Erakunde eskatzaileak soldatepeko langileak dauzka ■ La entidad solicitante tiene personal asalariado a su cargo
Aurreztutako aurrekontua (Aurrekontua / Proiektuaren guztizko kostua) Presupuesto presentado (Presupuesto / Coste total del proyecto)	€
Ustezko sarrerak (Jarduerak sortutako sarrerak aurreikusiz gero baino ez bete) Ingresos previstos (Únicamente cumplimentar si se preveen ingresos generados por la actividad)	€
Eskatutako zenbatekoa (AFari eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoa) Importe solicitado (Importe de subvención solicitada a la DFA)	€
Jardueraren / Programaren izena ■ Denominación de la actividad / Programa	Aurrekontua ■ Presupuesto
	€

BANKU DATUAK ■ DATOS BANCARIOS ⁽²⁾

Bankua ■ Banco	
IBAN	SWIFT

EGITASMOAREN TEKNIKARI ARDURADUNA (Egitasmoaren edukien argibideetarako harremana)

PERSONA TÉCNICA RESPONSABLE DEL PROYECTO (A efectos de contacto para aclaración de contenidos del proyecto)

Sexua ■ Sexo	Izena ■ Nombre	Lehen abizena ■ Primer apellido	Bigarren abizena ■ Segundo apellido
<input type="checkbox"/> Emakumea Mujer	<input type="checkbox"/> Gizona Hombre		
Telefonoa ■ Teléfono	Mugikorra ■ Móvil	Posta elektronikoa ■ Correo electrónico	

ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENA ■ DECLARACIÓN RESPONSABLE

("x" batez markatu dagokiona)

(Márquese con una "x" lo que corresponda)

Ordezkatzen dudana erakundeak baduela dagokion administrazio publikoak emandako "Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunari laguntzen dion erakundea" izeneko ziurtagiria.	<input type="checkbox"/>	Que la entidad a la que represento está acreditada como "Entidad colaboradora en igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres" por la correspondiente Administración Pública.
Ordezkatzen dudana erakundeak inguruabar hauetakoren bat betetzen duela:	<input type="checkbox"/>	Que en la entidad a la que represento concurre(n) alguna(s) de las circunstancias siguientes:
Berdintasun Plana du.	<input type="checkbox"/>	Existe un Plan de Igualdad.

Erakundearen zuzendaritza batzordeko kideen artetik, gutxienez, ehuneko 50 emakumeak dira.	<input type="checkbox"/>	La Junta Directiva de la entidad está integrada por, al menos, un 50 por ciento de mujeres.
Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3. artikuluan jasotako printzipioak betetzen ditu.	<input type="checkbox"/>	Cumple los principios del artículo 3 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.
Hizkuntza ez sexista erabiltzen du agiri eta euskarrietan.	<input type="checkbox"/>	Utiliza un lenguaje no sexista en sus documentos y soportes.
Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 16. artikuluan jasotako betebeharrak betetzen ditu.	<input type="checkbox"/>	Cumple la obligación del artículo 16 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

AGIRIAK (Erantsitako dokumentazioa adierazi) DOCUMENTACIÓN (Señalar la documentación que se adjunta)

OHARRAK: Agiriak lehendik aurkeztuta badaude, adierazi non eta noiz aurkeztu ziren.
OBSERVACIONES: Si la documentación está presentada, indicar dónde y cuándo.

		OHARRAK ■ OBSERVACIONES
Arabaren edo Trebiñuko Enklabearen erakundeak egoitza daukala frogatzen duen agiria.	Documento que acredite que la entidad tiene sede en Álava o en el Enclave de Treviño.	<input type="checkbox"/>
Erakundeak indarrean dituen estatutuak eta Elkarte eta Erakundearen Erregistroan legez eratu eta erregistratuta dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa.	Estatutos vigentes de la entidad y documentación que acredite estar legalmente constituida e inscrita en el correspondiente Registro de Asociaciones y Entidades.	<input type="checkbox"/>
I. eranskinaren araberako eskaera orria.	Formulario de solicitud según Anexo I.	<input type="checkbox"/>
II. eranskinaren araberako proiektuaren inprimakia.	Formulario del proyecto según Anexo II.	<input type="checkbox"/>
BEZA ordaintzetik salbuetsita daudela azaltzen duen ziurtagiria aurkeztu behar dute, dagokien zerga administrazioak emana, eta Balio Erantsiaren gaineko Zergan (BEZA) lainaren erregelaren daudenean, portzentajearen justifikazioa.	Certificado de exención de IVA expedido por la Administración tributaria competente; y aquellas que se encuentren en regla de prorrata en el Impuesto sobre el Valor Añadido (IVA), justificación del porcentaje.	<input type="checkbox"/>
Hala badagokio, erakunde publiko edota pribatuen lankidetzaren konpromisoaren idazkia (eredua II. eranskinean).	Si procede, escrito de compromiso de colaboración (según modelo incluido en Anexo II).	<input type="checkbox"/>
Hala badagokio, kontratazio gastuen aurreikuspenaren azalpen idazkia (eredua II. eranskinean).	Si procede, escrito explicativo de la previsión de gastos de contrataciones (según modelo incluido en Anexo II).	<input type="checkbox"/>
Hala badagokio, azpikontratatzeko baimena eskaera (eredua II. eranskinean).	Si procede, solicitud de autorización para subcontratación (según modelo incluido en Anexo II).	<input type="checkbox"/>
Baldin eta beste dirulaguntza publiko eta/edo pribatuen eskatu bada, haien egiaztagiriak aurkeztu behar dira zenbat diru eskatu den adieraziz.	En el caso de haber solicitado otras subvenciones públicas y/o privadas, documentación acreditativa de las mismas con indicación del importe solicitado.	<input type="checkbox"/>

Adierazten dut eskaera honetan jasotako informazio eta dokumentazio guztia benetako dela.

Aitortzen dut ordezkatzeko duen erakunde honek egunean dituela zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta baimena ematen diet Arabako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailari zerga betebeharrekin eta Berdintasunaren eta Giza Eskubidearen Zuzendaritzari, Gizarte Seguratasun eta zerga betebeharrekin zerikusia duten guztia egiaztatzeko.

Declaro que toda la información y documentación contenida en esta solicitud es auténtica.

Declaro que la entidad a la que represento se encuentra al corriente con las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social y autorizo al Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Álava a comprobar la situación en relación con las obligaciones tributarias y a la Dirección de Igualdad y Derechos Humanos a comprobar la situación en relación con las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social.

Oharra (1)

